

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

53. zenbakia

Data 2002-03-20

5401 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK
ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK
Martxoaren 11ko 220/2002 FORU AGINDUA, zerga berezien zenbait alderdiei
dagokiena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Martxoaren 11ko 220/2002 FORU AGINDUA, zerga bereziei buruzko zenbait gai arautzen dituena.

Foru agindu honen xedea dagoeneko araututa dauden zenbait alderdi aldatzea da. Horretarako, hainbat artikulua jasotzen ditu, erregulatu beharreko gaiak banan-banan hartzen dituztenak.

1. artikuluan, esate baterako, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duenak, jasotzen duen izendapen konbinatuaren erreferentziak eguneratzen dira. Izan ere, foru dekretu horrek, zerga berezien harmonizazioari buruzko Europako arteztarauek ezarritakoari jarraiki, fabrikazio zerga berezien esparru objektiboa finkatu zuen izendapen arantzelario eta estatistikoaren kodeak («izendapen konbinatua») erreferentzia harturik, besteak beste.

Europako Batzordearen 2001eko abuztuaren 6ko Erregelamenduak, 2.031/2001 zenbakidunak, hainbat aldaketa sartu ditu, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Europako Kontseiluaren 1987ko uztailaren 23ko 2.658/87 Erregelamenduaren I. Eranskinean –izendapen arantzelario eta estatistikoa («izendapen konbinatua») eta aduanako tarifa bateratua arautzen dituen erregelamendua da–. Aldaketa horren ondorioz, 2.710 partidan jasotzen diren kode guztiak aldatu egin dira.

20/1998 Foru Dekretuak 18. artikuluen 2 apartatuan ezartzen duenez, izendapen konbinatuaren egituraren aldaketarik gertatzen bada, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak formalki eguneratuko ditu foru dekretu horren testuan NC kodeei egindako erreferentziak.

Bestalde, foru agindu honen 2. artikulua derrigorrezkoa egiten du bideko salmenten prozeduran emate-orriak egiteko erabiltzen den albaran zenbakia adieraztea. Era berean, uztailaren 11ko 531/2000 Foru Aginduak, luzatutako agiri laguntzaileen eta batasunaren barruko trafikoan jasotako agiri laguntzaileen laburpen zerrendei buruzko eredu berriak (bi kasuetan, agiri erraztuak barne) eta euskarri magnetikoak onartzen dituenak, 500/503 ereduaren emate orrien euskarri magnetikoa onartu zuen 5. artikuluan. Zirkulazio agiriak aurkeztu, jaso eta tratatzeko ezarri diren teknika berriak direla-eta, komenigarri

jo da emate-orriak egiteko erabiltzen den alabaran zenbakia Administrazioari jakinarazteko obligazioa ezartzea.

3. artikulua haxe du helburu: Hidrokarburoen gaineko zergaren bigarren tarifako produktuak 50.000 litroko edo hortik gorako kantitatean jasotzen dituztenen urteko zerrenda aurkezteko eredia onartzea. Horrekin bete egiten da uztailaren 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuak, Zerga Berezien Erregelamendua onartzekoak, informazioa emateko obligazioari buruz dioena (166bis artikulua 4.b) artikulua).

Azkenik, 4. artikuluan kuota bateratuak aitortzeko erabili beharreko eredia onartzen da. Haxe du helburu: Aitorpenean aipatzen diren establezimenduei buruz banan-banako informazioa edukitzea subjektu pasiboak aitorpen bakarra aurkezten duenean 1.165/1995 Errege Dekretuaren 44.2 artikulua baimena eman diolako establezimendu edo harrera-lekuei dagozkien aitorpen-likidazioen aurkezpena eta ordainketa modu bateratuan egiteko.

Horiek horrela, honako hau,

XEDATU DUT

1. artikulua. Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duenak, izendapen konbinatuaren kodeei egiten zaizkien erreferentziak eguneratzea.

Lehen a. Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duenak, 49. artikulua 1 apartatuko a), b), c), d), e), f) eta g) letretan aipatzen dituen NC kodeak honako hauek direla ulertuko da:

a) letra: 2710.11.31, 2710.11.51 eta 2710.11.59

b) letra: 2710.11.41, 2710.11.45 eta 2710.11.49

c) letra: Lehen esaldian 2710.11.11tik 2710.11.90ra bitarteko kodeak direla ulertuko da; eta bigarren esaldian 2710.11.21 eta 2710.11.25 kodeak izango dira.

d) letra: 2710.19.21 eta 2710.19.25

e) letra: Lehen esaldian 2710.19.11tik 2710.19.29ra bitarteko kodeak direla ulertuko da; eta bigarren esaldian 2710.19.29 kodea izango da.

f) letra: 2710.19.31tik 2710.19.49ra arteko kodeak

g) letra: 2710.19.51tik 2710.19.69ra arteko kodeak

Bigarrena. Martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duenak, 50. artikulua 1 apartatua aipatzen dituen NC kodeak, hain zuzen ere,

Hidrokarburoen gaineko Zergaren bigarren tarifako 2.8, 2.9, 2.10 eta 2.11 epigrafeetan jasotzen direnak, honako hauek direla ulertuko da:

2.8. epigrafean: 2710.11.21, 2710.11.25, 2410.11.70 eta 2710.11.90

2.9 epigrafean: 2710.19.29

2.10 epigrafean: 2710.19.29

2.11 epigrafean: 2710.19.81, 2710.19.83, 2710.19.85, 2710.19.87, 2710.19.91, 2710.19.93 eta 2710.19.99

Hirugarrena. 2710.91.00 eta 2710.99.00 NC kodeetan sailkatzen diren olio hondarrak euren sorburu diren olio arinen, bitartekoen edo astunen epigrafeetan sartzen direla joko da.

2. artikulua. 500/503 ereduaren eta emate orrien euskarri magnetikoa.

Aldaketak sartu dira 500/503 ereduaren eta emate-orrien euskarri magnetikoan, uztailaren 11ko 531/2000 Foru Aginduak, azalpen zatian aipatuak, onartutakoan. Eta hauxe da horren helburua: Zergapekoak euskarri magnetikoan adieraztea zein den fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak bideko salmenten prozeduran igortzean luzatzen diren emate-orriak egiteko zirkulazio albaranen zenbakia zerga hori tasa murriztua aplikatuta sortzen denean.

3. artikulua. Hidrokarburoen gaineko zergaren bigarren tarifako produktuak 50.000 litroko edo hortik gorako kantitatean jasotzen dituztenen urteko zerrenda aurkezteko eredia onartzea.

Hidrokarburoen gaineko Zergaren bigarren tarifako produktuen hornitzaileek aurkeztu behar duten urteko zerrenda, Zerga Berezien Erregelamenduak 116bis artikulua 4 apartatuko b) letran aipatzen duena, foru agindu honetako I. Eranskinean ageri den formatuan aurkeztuko da.

Establezimendu bakoitzeko urteko zerrenda bana beteko da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu beharko da ale bikoiztuan, urte bakoitzeko lehen hiru hilekoaren barruan. Ale bat zerga Administrazioarentzat izango da, eta bestea interesatuari itzuliko zaio, behin bisatu ondoren.

4. artikulua. (KUBA) Kuota bateratuak banakatzeko aitorpen eredia onartu eta aurkezte.

1. Onarturik geratzen da Fabrikazio Zerga Berezien kuota bateratuak banakatzeko erabiliko den KUBA aitorpen eredia, foru agindu honetako II. Eranskinean jasota ageri dena.

2. Kuota bateratuen banakaketarako aitorpena ale bikoiztuan aurkeztuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan, eta aitorpenari ordainketa egin izanaren aitorpen-likidazio balidatuaren kopia edo Administrazioaren alea erantsiko zaio, edo horren ezean, ordainketa geroratu edo zatikatzeko baimena. Ale bat bulego kudeatzailearentzat izango da, eta bestea interesatuari itzuliko zaio, behin bisatu ondoren. Eredua hau fabrikazio zerga berezi guztietarako izango da erabilgarria, baina zerga bakoitza independenteki hartuz.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean. Dena den, 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoak 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak, eta data horretatik aurrera aurkeztu behar diren aitorpenei nahiz hortik aurrera egin beharreko ordainketei aplikatuko zaie, nahiz eta bertan aipatzen diren egitate ezargarriak 2001. urtean sortuak izan.

Donostia, 2002ko martxoaren 12a.—Antton Marquet Artola, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(2951) (2763)

 Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.net/ogasuna	HIDROKARBURROEN GAINEN ZERGA IMPUESTO SOBRE HIDROCARBUROS BIGARREN TARIFAKO PRODUKTUEN HARTZAILEEN URTEKO ZERRENDA RELACIÓN ANUAL DE DESTINATARIOS DE PRODUCTOS DE LA TARIFA SEGUNDA		512
	EKITALDIA: EJERCICIO:		



Igorlea Expedidor	IFZ / N.I.F.	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre (o razón social)		
	Zerga helbidea, udalerria eta probintzia / Domicilio fiscal, Municipio y Provincia			Posta kodea / Cod. Postal
	JEK / CAE			Posta kodea / Cod. Postal

HARTZAILEEN ETA PRODUKTU IGORRIEN ZERRENDA
RELACIÓN DE DESTINATARIOS Y PRODUCTOS ENVIADOS

Ordena zk. N.º de orden	SOZIEATEAREN IZENA RAZÓN SOCIAL	IFZ NIF	JEK CAE	EMATE TOKIAREN HERRIA ETA PROBINTZIA MUNICIPIO Y PROVINCIA DEL LUGAR DE ENTREGA	Epig. Epig.	Kopurua Cantidad	Epig. Epig.	Kopurua Cantidad	Epig. Epig.	Kopurua Cantidad

Orri zerrenda Relación de hojas	Orria: Hoja	/ de	Data eta aitortzaile sinadura Fecha y firma del declarante	Data Fecha	Sinadura; Firma:

Administrazioaren alea / Ejemplar para la administración

BIGARREN TARIFAKO PRODUKTUEN HARTZAILEEN URTEKO ZERRENDA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Inprimaki hau idazmakīnaz edo boligrafoz bete behar da azalera gogor baten gainean, letra larriak erabiliz.

Igorlearen identifikazioa eta produktuaren establezimendu igorlearen identifikazioa

Jarri behar dira produktuak igortzen dituen establezimenduaren titularraren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) eta deiturak eta izena edo sozietatearen izena. Kasu guztietan establezimendu igorlearen datuak bete behar dira, bai eta JEK kodea eta helbidea ere.

Hartzaileen eta produktu igorrien zerrenda

Hartzaileen zerrendan bakarrik jarri behar da aurreko urtean (ekitaldia) zerrendari lotutako establezimendufik nori igorri zitzaizkion bigarren tarifako 50.000 litro edo gehiagoko produktu hautemangarriak, Zerga Bereziei buruzko martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak 51.1 artikuluan jasotako salbuespenera bilduta.

Hidrokarburoen gaineko Zergaren bigarren tarifari lotutako produktu hautemangarritzat hartuko dira 20/1998 Foru Dekretuak 50.1 artikuluaen 1 apartatuko bigarren tarifyan zerrendatutako produktuak, baldin eta foru dekretu horretako 49. artikuluaen 1 apartatuan definiturik badaude.

Hartzaile bakoitzaren identifikazio datuen barruan, jarri behar dira bigarren tarifara bildutako produktu hautemangarriak emateko erabili den establezimenduaren udalerria eta probintzia. Bidezkoa denean, jarduera eta establezimendu kodea (JEK) jarri behar da.

20/1998 Foru Dekretuak 50. artikuluan aipatutako epigrafeak jarri behar dira. Produktuen kopurua litrotan adierazi behar da; dena den, salbuespenez, 2.12 eta 2.13 epigrafeetako produktuen kopurua gigajouletan adieraziko dira.

Orri zerrenda

Inprimakiaren lerro kopurua nahikoa ez bada, behar adina dokumentu aurkeztu behar dira. Horretarako, atal honetan jarri behar dira orriaren zenbakia eta dokumentuaren orri kopuru osoa.

INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR LA RELACION ANUAL DE DESTINATARIOS DE PRODUCTOS DE LA TARIFA SEGUNDA.

Este documento deberā cumplimentarse a miquina o utilizando bolgrafo, sobre superficie dura y con letras mayusculas. ¹

Identificación del expedidor y del establecimiento expedidor de los productos.

Se consignarā el N.I.F. y los apellidos y nombre o razōn social del titular del establecimiento desde el que salen los productos. En todos los casos se deberā cumplimentar los datos del establecimiento expedidor, CAE y domicilio.

Relaci3n de destinatarios y productos enviados.

La relaci3n de destinatarios se referirā, exclusivamente, a aquellos a los que durante el aīo anterior (ejercicio) se les haya enviado desde el establecimiento expedidor a que se refiere la relaci3n, un volumen de productos sensibles de la tarifa segunda igual o superior a 50.000 litros, al amparo de la exenci3n contemplada en el artculo 51.1 del Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, de Impuestos Especiales, por destinarlos a usos distintos a los de carburante o combustible.


Son productos sensibles de la tarifa segunda del Impuesto sobre Hidrocarburos, los productos relacionados en la tarifa segunda del apartado 1 del artculo 50 del Decreto Foral 20/1998, incluidos en las definiciones del apartado 1 del artculo 49 de dicho Decreto Foral.

Dentro de los datos identificativos de cada destinatario, el municipio y provincia corresponderā al del establecimiento donde ha tenido lugar la entrega de los productos sensibles de la tarifa segunda. El C3digo de Actividad y Establecimiento "CAE" se consignarā si procede.

Los epigrafes que deben consignarse son los que figuran en el artculo 50 del Decreto Foral 20/1998. La cantidad de los productos se expresarā en litros, salvo para los productos clasificados en los epigrafes 2.12 y 2.13, que se expresarā en gigajulios.

Relaci3n de hojas

Si no fuera suficiente el nūmero de līneas del impreso, presente tantos documentos como sean necesarios, consignando en este apartado el nūmero de hoja y de cuantas hojas conste el documento.



Fabrikazio Zerga Bereziak
Impuestos Especiales de Fabricación

KUOTA BATERATUEN BANAKETAREN AITORPENA (KUBA)
DECLARACIÓN DEL DESGLOSE DE CUOTAS CENTRALIZADAS (DCC)

ZERGA:

IMPUESTO SOBRE:

EREDUA: 56

EREDUA: 30
MODELO: 56

Orri zk.:

Hoja n.º

1

d

Subj. pasiboaren identifikazioa Identificación del Sujeto pasivo	IFZ / N.I.F.	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre (o razón social)		Telefona / Teléfono	Sortza-pena Devengo	Ekitaldia Ejercicio	
	Zerga helbidea / Domicilio fiscal		Zenbakia / Núm.	Oina / Piso		Zergaldia Período	
	Udalerría eta probintzia / Municipio y Provincia						

JEK CAE	KUOTA OSOA CUOTA ÍNTEGRA	KUOTAREN KENKARIAK DEDUCCIONES DE LA CUOTA	KUOTA LIKIDOA CUOTA LIQUIDA
Guztira Totales			
JEK kodeei egotzi ezineko kuotaren kenkariak Deducciones de la cuota no imputables a los CAEs			
Ordainutzeko kuota likidoa Cuota Líquida a ingresar			

Administrazioaren alea / Ejemplar para la administración

Data _____
 Fecha _____

Aitortzailearen sinadura
 Firma del declarante

Kuota bateratuen banaketaren aitortpena betetzeko jarraibideak

Inprimaki hau idazmakinez edo boligrafiz bete behar da azalera gogor baten gainean, letra larriak erabiliz.

Zerga

Adierazi behar da banatu beharreko kuotei dagokien fabrikazio zerga berezia. Era berean, ordainketarako eredu ere jarri behar da (560, 561, 562, 563, 564, 566), kontuan hartuta ondoko zerga hauetako bat ote den: Elektrizitatea, Garagardoa, Bitarteko Produktuak, Alkohola eta Edari Deribatuak, Hidrokarburoak eta Tabako Laboreak, hurrenez hurren.

Subjektu pasiboaren identifikazioa

Jarri behar dira Gipuzkoako Foru Aldundiak sarrerak bateratzeko baimendu duen subjektu pasiboaren IFZ eta izen-deiturak edo sozietatearen izena.

Sortzapena

Aitortpen-likidazio bateratuan adierazitako datuak jarri behar dira.

Kuota bateratuen banaketa

Eurotan adieraziko dira kopuruak. Gehienez bi zenbaki hamartar jarri behar dira, eta behetik edo goitik biribildu behar dira kopuruak, kontuan hartuta hirugarren zenbaki hamartarra Setik beherakoa ote den.

- **Jarduera eta establezimendu kodea (aurrerantzean JEK).** Subjektu pasiboaren establezimenduen JEK kodeak jarri behar dira, baldin eta establezimendu horiek bateratze baimenean jasota badaude.
- **Kuota osoa.** JEK bakoitzari dagokion kuota osoa jarri behar da, kontuan hartu gabe zein epigraferi dagokion.
- **Kuotaren kenkariak.** JEK kode bakoitzari dagokion kopuru kenkariduna jarri behar da. Kopuru kenkaridunak ezin badira bereizi, dokumentuaren amaieran jarri behar dira (JEK kodeei egotzi ezineko kuotaren kenkariak).
- **Kuota likidoa.** Kuota osoaren eta JEK kode bakoitzeko kenkarien arteko diferentzia jarri behar da.
- **Ordaintzeko kuota likidoa.** JEK kode bakoitzeko kuota likidoaren eta JEK kodeei egotzi ezineko kuotaren kenkarien arteko diferentzia jarri behar da.

Kopuru osoak bat etorri behar dira autolikidazio bateratuan jarritakoei.

Orri bat baino gehiago bete behar izanez gero, ondorengo orriaren lehen lerroa eraman behar dira aurrekoan jasotako kopuru osoak.

Subjektu pasiboak dokumentua sinatu behar du, eta aitortpen-likidazio bateratuarekin eta eragiketa-aitortpenekin batera aurkeztu behar du Gipuzkoako Foru Aldundiko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan.

Instrucciones para cumplimentar la Declaración del Desglose de las Cuotas Centralizadas

Este documento deberá cumplimentarse a máquina o utilizando bolígrafo, sobre una superficie dura y con letras mayúsculas.

Impuesto.

Se indicará el impuesto especial de fabricación relativo a las cuotas a desglosar y el modelo utilizado para su ingreso: 560; 561; 562; 563; 564; 566, según se trate del impuesto sobre la: Electricidad; Cerveza; Prod. Intermedios; Alcohol y Bebidas Derivadas; Hidrocarburos; Labores del Tabaco, respectivamente.

Identificación del sujeto pasivo.

Se indicará el NIF y el nombre y apellidos o razón social del sujeto pasivo autorizado por la Diputación Foral de Gipuzkoa para la centralización de los ingresos.

Devengo.

Se trasladarán los datos consignados al respecto en la correspondiente Declaración-Liquidación centralizada.

Desglose de cuotas centralizadas.

Las cantidades se expresarán en Euros, con un máximo de dos cifras decimales, redondeando por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea, o no, inferior a 5.

- **Código de Actividad y de Establecimiento (en adelante CAE).** Se consignarán los CAEs de los establecimientos del sujeto pasivo, que comprende la autorización de centralización.
- **Cuota íntegra.** Se indicará la cuota íntegra correspondiente a cada CAE, con independencia de los posibles epígrafes a que pueda corresponder.
- **Deducciones de la cuota.** Deberá indicarse el montante a deducir correspondiente a cada CAE. Si no fuese posible su desglose se consignará al final del documento, en el espacio previsto al efecto. (Deducciones de la cuota no imputables a los CAEs).
- **Cuota líquida.** Será la diferencia entre cuota íntegra y deducciones por CAE.
- **Cuota líquida a ingresar.** Será la diferencia entre total cuota líquida por CAEs y deducciones de la cuota no imputables a los CAEs.

Los totales coincidirán con los consignados en la respectiva autoliquidación centralizada.

Si fuesen necesarias más de una hoja, se trasladarán a la primera línea de la siguiente hoja los subtotales de la anterior.

El documento deberá ser suscrito por el sujeto pasivo y se presentará conjuntamente con la declaración-liquidación centralizada y las declaraciones de operaciones que proceda, en el Servicio de Impuestos Indirectos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.